

Trantsizioa Euskal Herrian: zapalkuntza frankistatik Estatutuaren onarpenera (1975-1979)

***Olatz Gamboa Uriarte
Garazi Garaio Ellakuria
Maria Ruiz Torrado***

Historian lizentziatuak

Sarrera

Diktaduraren eraispena pixkana-pixkanaka eman zen. Horrek baldintzatu zuen Francoren heriotza izatea epealdi berri bati hasiera eman zion gertakaria, gertakari benetan garrantzitsua. Hala ere, trantsizioaren lehenengo aldiak moztutako diktaduraren jarraipena izan ziren. Francoren ondorengotza, 1975ko azaroaren 22an Juan Carlos I.ak hartu zuen.

1975tik 1976ra Monarkiaren lehen gobernua eman zen eta horren gobernuburu Carlos Arias Navarro izan zen. 1976. urtean gatazka ugari egon ziren: grebak, manifestazio feministak, amnistia eskaerak, Euskal Herrian autonomiaren aldeko ekintzak, ETAren poliziaren aurkako atentatuak, etab.; batzeko eta manifestazioak egiteko eskubideak arautu barik zeudenez, poliziaren eta manifestarien artean liskarrak gertatu ziren. Koordinadora Demokratikoak erregimeneko preso guztientzako amnistia orokorra eskatu zuen. Liskar horiek guztiak zirela eta, eta Erregeak bultzatuta ere, 1976ko uztailaren 1ean Arias Navarrok dimititu zuen.

Bestalde, Euskal Herriak ekonomikoki krisi larria bizitzen ari zen bere industria tradizionalen, siderurgian eta ontzigintzan, hain zuzen ere. Garai oparo baten amaiera izan zen, ekonomian zein gizartean arazo garrantzitsuak sortuz: langabezia, gizarte-ezegonkortasuna, emigrazioa, jaiotza-tasen jaitsiera... Hala ere, Euskal Herriak krisi honetatik ateratzeko ahalegin handiak egin zituen; egoera modernizatzen eta Europar Batasuneko moneta eta ekonomian integratzen saiatu zen.

1975tik 1979ra, trantsizioko euskal mapa politikoa makina bat alderdiz osatua egon zen. Horrela, pluralismo politikoari buruz hitz egin dezakegu: AFN, EAE, EKD, EE, EHAS, EIA, EKA, EMK, ES, ESB, ESEI, HASI, HB, IR, LAIA, LKI, ORT, etab. Aldaketa nabarmenenak euskal nazionalismoaren eremuan gertatu ziren.

1976tik 1977ra, Adolfo Suárezen lehen gobernua aritu zen. Nolabaiteko jarrera berritzailea eta elkarrizketaren aldekoa nagusitu zen. Ordura arte geldiarazitako aldaketa demokratikoek erritmo bizia hartu zuten. Batez ere, Ministroen Kontseiluan Espainiaren demokratizaziorako pausoak eman zirela nabarmendu beharra dago: lehen amnistia preso politikoentzat, Konstituzioa egiteko bidea, Hauteskunde Orokor askeak, prentsaren nolabaiteko askatasunaren lorpena, etab. gertatu ziren giro horretan. Horretaz gain, Erreforma Politikorako Lege Proiektua telebistan aurkeztu zen. Alderdi politikoak legeztatu ziren eta Gobernuak bigarren amnistia bat eman zuen. Garai honetako aldaketaren arerio garrantzitsuenak "Guerrilleros de Cristo Rey" talde faxista, GRAPO eta ETA ditugu.

1977an, Euskal Herriko udaletxeei ekitaldi baterako gonbidapena luzatu zien Etxarri-Aranazeko udalak. Helburua Euskal Herriaren funtsezko askatasunen alde egitea zen, baina Guardia Zibilak ekintza eragotzi zuen. Azpimarratu beharra dago ere urtarrilaren 19an Suárezek ikurrina legeztatu zuela, Euskal Herriko banderatzat.

Badirudi 1977ko Hauteskunde Orokorrei esker demokraziaren bidea zabaltu egin zela. 1977tik 1979ra Suárezen bigarren gobernua garatu zen. Gobernuaren betebeharrerako bat Espainiako ekonomia sustatzea izan zen, eta horretarako, 1977an Moncloako ituna sinatu zen: soldataren igoera zehaztu zen, inflazioa

kontrolatzen saiatu ziren, zerga erreformak egin ziren, iruzurrak ekiditeko neurriak hartu ziren, gizarte segurantzaren eta enpresa publikoen erreformari ekin zitzaion, etab.

Euskal Herrian aurre-autonomia bat ezarri zen eta Euskal Herriko Kontseilu bat sortu zen. Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa ziren Kontseiluaren partaideak. Egun horietan, Gorteen betebeharrerako bat Konstituzioa idaztea izan zen. Horretarako talde bat sortu zen Parlamentuan eta horretan ez zegoen alderdi abertzaleen ordezkariarik, beraz, proiektua komisiolari pasa arte itxaron behar izan zen zuzenketak burutu ahal izateko. Euskal Herriari eragiten zioten artikulua garrantzitsuenak bigarrena eta zortzigarrena izan ziren. Hortaz gain, nabarmendu beharra dago ere eztabaida handia eman zela Euskal Herriko eskubide historikoen eta autodeterminazioaren inguruan.

Suárezen hirugarren gobernua garatu zen 1979tik 1981era. Garai horretan, Vatikanorekin akordioak sinatu ziren, eliza finantziarioki autonomia izan zedin. Bestalde, Gorteak desegin ziren eta 1979an Hauteskunde Orokorrak eta Udal Hauteskundeak deitu ziren. 1981ko urtarrilean, Suárezek dimisioa aurkeztu zuen egoera politikoa, soziala, ekonomikoa eta militarra beretzat jasanezina zelako.

Euskal Herriari dagokionean, 1979an Gernikako estatutua onartu zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat. Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoa sortu zen. Nafarroa Estatutu horretatik kanpo gelditu zen, UCDk bultzatutako politikaren eta 1982an PSOEek indarrean jarritako legeen ondorioz. Nafarroan ez zen inolako erreferendumik egin Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarekin autonomia erkidegoa osatu nahi zuen edo ez adierazteko.

Konstituzioa eta Gernikako Estatutuaren onarpenaren urteetan, ETAk aurreko garaietan baino atentatu gehiago burutu zituen. Baina, 80ko hamarkadatik aurrera atentatuen kopurua jaitsiz joan zen.

1981ean Leopoldo Calvo Sotelo espainiar gobernura heldu zen eta bere inbestiduraren egunean, otsailaren 23an, Espainiako Gorteetan Tejerok estatu kolpea eman zuen. UCDrentzat krisi garaia izan zen: Guardia Zibilak hiru gazte hil zituen ETAkoak zirelakoan, Espainiako erregeak Gernikako Junta Etxean diskurtso bat botatzen ari zela HBko kideak besoa altxatuta Eusko Gudariak kantatzen hasi ziren, etab. Hurrengo Hauteskunde Orokorretan, 1982an, PSOEek irabazi zuen nagusitasun handiarekin.

Lan honetan trantsizioaren urteetan Hego Euskal Herrian gertatutako prozesu nagusiak azaltzen saiatuko gara, batez ere, bilakaera politikoa jarraituz. ETAREN paperean, aurre-autonomian, Gernikako Estatutuan, Nafarroaren bazterketan eta beste hainbat gaietan sakontzea izango dugu helburu.

I. Euskal trantsizioko indar politikoak: pluralismoa

Makina bat alderdik osatu zuten trantsizioko euskal mapa politikoa. Aukera politikoak oso anitzak izan ziren: alderdi zaharrak eta berriak, abertzaleak eta estatalak, Francoren erregimenetik eratorritakoak eta oposizioan egon zirenak, borroka armatuarekin lotutakoak eta indarkeria gaitzesten zutenak, eta azkenik, eskuina, zentroa eta ezkerra. Benetako letra-zopa izan zen. Hala ere, denborak bere lekuan utzi zuen alderdi bakoitza, aukera politiko garrantzitsuak alderdi eta koalizio gutxi batzuetara mugaturik geldituz.

Espainiar eskuin eta zentroa ordezkatzeko Euskal Kristau Demokrazia (EKD) apala zegoen, bi alderdi berrirekin batera: Unión de Centro Democrático (UCD), Adolfo Suárezek sortua, eta Alianza Popular (AP), Manuel Fragak sortua eta are eskuindarragoa zena. 1979an, aipatutakoei alderdi berri bat batu zitzaion: Jesús Aizpúnen Unión del Pueblo Navarro (UPN), UCDtik zatitutako adar nabarrista. Ezker espainiarrak jarraikortasun handiagoa erakusten zuen, Partido Socialista de Euskadi (PSOE) indartsu batekin, non sozialista arabarrak, bizkaitarrak, gipuzkoarrak eta nafarrak zeuden. Honen ezkerretara, Partido Comunista (PCE) ezker muturreko alderdi txikiagoekin lehiatzen zen, hala nola, Organización Revolucionaria de los Trabajadores (ORT), Nafarroan nolabaiteko indarra lortu zuena, Partido del Trabajo de España (PTE), Euskadiko Mugimendu Komunista (EMK) eta Liga Komunista Iraultzailea (LKI). Euskal Herriko mugimendu politiko tradizional bat, karlismoa, Euskadiko Karlista Alderdia (EKA) bihurtu zen. Gutxiengoan zegoen talde berezia zen eta bere burua sozialista autogestionario eta euskaltzaletzat zuen, gainontzeko karlistek, eskuin muturreko tradizionalismo katolikoari lotuak, onartzen ez zuten definizioa.

Aldaketa nabarmenenak euskal nazionalismoaren eremuan gertatu ziren, non Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ) alderdi nagusia izaten jarraitu zuen, baina bere ezkerretara alderdi ugari agertu ziren. Euzko Abertzale Ekintza (ANV-EAE) zen horien artean zaharrena. Jatorria II. Errepublikan zuen eta bitan banatua zegoen. Gainontzeko alderdiak sorrera berrikoak ziren. Batzuk sozialdemokratak ziren, esaterako, Euskadiko Sozialistak Elkarte Indarra (ESEI) eta hasiera batean Euskal Sozialista Biltzarrea (ESB); beste alderdi batzuk ETA Politiko-militarrarekin zuten lotura, hala nola, Euskal Iraultzarako Alderdia (EIA), Euskadiko Mugimendu Komunistarekin (EMK) batera, Euskadiko Ezkerraren (EE) sorrera ekarri zuena. Are konplexuagoa zen ETA Militarraren ingurua. Bertan kokatu behar ditugu Euskal Herriko Alderdi Sozialista (EHAS), Euzko Sozialistak (ES) -ondoren, Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailean (HASI) fusionatuak- eta Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia (LAIA). Bestalde, ezker abertzaleko alderdi horietako batzuk (LAIA, EHAS) Koordinadora Abertzale Sozialistan (KAS) integratu ziren 1975. eta 1976. urteen

artean, ETA Militararekin eta LAB eta LAK sindikatuekin batera¹. 1978an, HASI, LAIA, ESB eta ANV-EAE, Herri Batasuna (HB) koalizioan bildu ziren².

Aukera politiko horien guztien indarra ezagutzea ezinezkoa izan zen 1977ko hauteskundeen aurretik. Bazirudien kaleak astintzeko ahalmen handiagoa erakusten zuten alderdiek (batez ere, ezker abertzaleko alderdiak eta hausturaren aldeko beste talde batzuk) irabaziko zituztela hauteskundeak. Baina, ez zen horrela gertatu eta laster ikusi zen alderdi handi tradizionalak, EAJ eta PSOE, zirela atxikimendu handiena zutenak. Horiekin batera UCD, EE, HB eta, neurri apalagoan AP, nabarmendu ziren hauteskundeetan. Gainontzeko alderdiak Legebiltzarretik kanpo gelditu ziren, asko denbora gutxian desagertu zirelarik.

1. Taula: Euskal alderdiak trantsizioan (1975-1979)

Sigla	Izena	Sorrera	Buruak	Oharrak
AFN	Alianza Foral Navarra	1977	Javier Nagore, Albito Viguria, Alfredo Les	
ANV-EAE	Acción Nacionalista Vasca- Eusko Abertzale Ekintza	1930	Gabriel Goitia, Valentín Solagaistúa	Bitan zatitua. HBn integratua 1978an.
AP	Alianza Popular	1976	Manuel Fraga, José María Aresti, Pedro Mendizábal	1989an Partido Popular bezala berriro fundatua.
DCV-EKD	Democracia Cristiana Vasca- Euskal Kristau Demokrazia	1976	Julen Guimón, Fernando Buesa	Federacion de la Democracia Cristianan integratua.
EE	Euskadiko Ezkerra	1977	Juan María Bandrés, Francisco Letamendia	EIA eta EMKren koalizioa. 1982an alderdi bihurtu zen.
EHAS	Euskal Herriko Alderdi Sozialista	1975	Santiago Brouard	HAS eta EASen fusioa, biak 1974an sortuak. HASIn integratua.
EIA	Euskal Iraultzarako Alderdia	1977	Mario Onandia, Vicente Serrano Izko	EEn integratua.
EKA	Euskadiko Karlista Alderdia	1969	Carlos Hugo de Borbón-Parma, Mariano Zuffa, José María Zavala	XIX. mendean du jatorria.
EMK-MCE	Euskadiko Mugimendu Komunista- Movimiento Comunista de España	1972	Patxi Iturrioz, Rosa Olivares, Manu Escudero	LKIrekin Zutiken fusiónatua, 1992an.
ES	Eusko Sozialistak	1975	Javier Alonso, Mikel Salaberri	1977an HASIn integratua.
ESB	Euskal Sozialista Biltzarrea	1976	Iñaki Aldekoa, Carlos Caballero, Jose Luis Alvarez Enparantza	1978an HBn integratua.
ESEI	Euskadiko Sozialistak Elkartze Indarra	1976	Gregorio Monreal, José Manuel Castells	1981ean desagertua.

¹ Hasiera batean, EIA, EE eta ETA Politiko-militarra KASen barne zeuden, EHAS, LAIA eta ETA Militararekin batera. Baina, hauteskundeen, espainiar Konstituzioaren eta Gernikako Estatutuaren aurrean sortutako iritzi guztiz ezberdinen ondorioz, ezker abertzalea bi bloketan banatu zen: alde batetik, EIA, EE eta ETApn, KASetik kanpo gelditu zirelarik, eta bestetik, EHAS, LAIA eta ETAm, KASen barne jarraitu zutelarik. EHAS eta ESen fusioaz HASI sortu zenean, KASen izaeran aldaketak gertatu ziren eta ezker abertzaleko alderdi eta erakundeen koordinadora izatetik alderdi anti-instituzionalen estrategia komunaren bloke zuzendaria izatera pasa zen.

² Altsasuko mahaiaren ondorioz sortu zen Herri Batasuna. Koalizio horretan bildu ziren HASI, LAIA, ESB eta ANV-EAE alderdi abertzale eta ezkertiarak; hasieran, EIAk ere parte hartu zuen Altsasuko bileretan, baina bere jarrera ezberdinaren ondorioz, kanpoan geldituko zela erabaki zen. Jon Idigorasen hitzetan, honelakoa izan zen HBren sorrera: «Ezker abertzaleak alternatiba komun bat eskaintzeko beharra zuela ikusita, HASI, LAIA, ANV eta ESB alderdiek eta sektore herritar ezberdinetako ordezkari batzuek bilerak egin zituzten Altsasun. Altsasuko Mahaia izenarekin ezagutzen den harreman foro hartatik plataforma zabal bat eratzeko konpromisoa sortu zen, bertan hausturaren aldeko indar politikoen ordezkariak, herri taldeen ordezkariak eta beraien karisma eta ordezkariatzarengatik gizartearen sektore batzuk biltzen zituzten pertsonak egongo zirelarik. 1978ko apirilean argi berdea eman zitzaion Herri Batasuna izena jaso zuen proiektu horri. Bere aurkezpen ofiziala urrian egin zen Bergaran (...) Une politiko zehatz baterako sortu zen plataforma hori, hau da, sortu berria zen Euskal Kontseilu Orokorrari eta Baskongadak eta Nafarroa zatitzeko bere proiektuari aurre egiteko eratu zen. Horrela, Herri Batasunak hiru kezka nagusi zituen bere sorreran: espainiar Konstituzioa, Baskongaden Estatutua eta udal hauteskundeak. Baina, denak oker ginen (...) HBk behin behineko plataforma bat baino askoz ere gehiago zela frogatu zuen» (Idigoras, 1999: 319-320).

HASI	Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea	1977	Txomin Ziluogaga, Santiago Brouard, Alberto Figueroa	EHAS eta ESen fusioa. 1978an HBn integratua.
HB	Herri Batasuna	1978	Jon Idigoras, Patxi Zabaleta, Telesforo Monzon, Jose Luis Elcoro	HASI, LAIA, ESB eta ANVren arteko koalizioa.
IR	Izquierda Republicana	1934	Jesús Ausín	
LAIA	Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia	1974	Iñaki Urrestarazu	1978an HBn integratua.
LKI-LCR	Liga Komunista Iraultzailea-Liga Komunista Revolucionaria	1973	Ramón Zallo, Antxon Carrera, Josu Loroño	EMKrekin Zutiken fusioatua 1992an.
ORT	Organización Revolucionaria de los Trabajadores	1969	Teodoro Soto, Juan José Martínez Leunda	PTekin fusioatua 1979an.
PCE	Partido Comunista de España	1920/ 1922	Santiago Carrillo, Ramón Ormazábal, Tomás Tueros, Ángel Pascual	Euskadiko Partido Komunista (EPK), PCEren barne zegoena, 1935ean sortu zen.
PNV-EAJ	Partido Nacionalista Vasco-Euzko Alderdi Jeltzalea	1895	Carlos Garaikoetxea, Juan Ajuriaguerra, Xabier Arzalluz	
PSOE	Partido Socialista Obrero Español	1879	Felipe González, José María Benegas, Enrique Múgica, Nicolás Redondo, Juan Iglesias	Partido Socialista de Euskadi (PSE), PSOEn integratua zegoena, 1977an fundatu zen.
PSP	Partido Socialista Popular	1974	Enrique Tierno Galván, Carlos Fuentes, Pedro López Merino	1978an PSOEn integratua.
PTE	Partido del Trabajo de España	1965	José María Beraza	ORTekin fusioatua 1979an.
UCD	Unión de Centro Democrático	1977	Adolfo Suárez, Jesús María Viana, Juan Echevarría Gangoiti, Jaime Ignacio del Burgo	1982ko urriko hauteskundeak eta gero desagertu zen.
UPN	Unión del Pueblo Navarro	1979	Jesús Aizpún, Rafael Gurrea	UCDren zatiketa. 1991n PPrekin fusioatua.

Taulan ez daude alderdi txikiak, ezta ezegonkorrenak ere. Sorreraren data alderdiaren sorrera ofizialari dagokiona da, klandestinitatean sortutako taldeen kasuan hori zehaztea nahiko zaila delarik. Alderdiaren buruei, buru euskaldunak eta alderdiaren erakunde zentralerako buruak aipatzen dira.

Iturria: BAZÁN, I. (zuz.), De Úbal a Aitor. Historia de Vasconia. La esfera de los libros. Madril, 2002. 619-620. orr.

II. Urte bortitzak: ETaren papera

ETA frankismo garaian sortu zen, 1959an. Nahiz eta askok pentsatu badute ere, EAJ ez zen talde honen oinarria edo jatorria izan; EAJren pasibotasunaren kontrako batzuk izan ziren taldea osatu zutenak, hots, Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko arazoetan EAJk zeukan jarrerak bultzatu zuen ETaren sorrera. ETaren ideologia ez zen frankismoan bakarrik oinarritzen. Bere ideia garrantzitsuena Euskal Herriaren independentzia zen.

Frankismoaren eta ETaren arteko borrokaren une garrantzitsuenetariko baten ostean, aste batzuk beranduago, hil zen Franco. Ministroen Kontseiluan, 1975. urteko irailaren 25ean gertatuko ziren fusilamenduen ekitea edo indultua eztabaidatzen zen lekuan, Francok Marokotik bultzatutako errepresioaren eredia ez zuela ahaztu adierazi zuen. "Beste euskaldun bat", Otaegi, beharrezkoa zen Txikirekin batera hiltzeko, eta horrela, terrorismoaren kontra zeukan politikaren oreka mantenduko zen: FRAPeko hiru eta ETako bi (Juliá, Pradera, Prieto, 1996: 289).

ETA aldatuz joan zen, EAJren pasibotasunaren kontra zihozten gazte ideologizatu batzuk izatetik talde politiko-militar bat izatera pasatu zen, gero eta laguntza sozial handiagoa zuelarik. Izaera burguesetik eta EAJren ikuspuntu arkaikotik urruntzeko beharrak, erradikalismo abertzalearen eta langileriaren arteko kontziliazioa bultzatu zuen. ETaren izaera bikoitza ezartzerako orduan arazoak sortu ziren eta, horregatik, ETA banatu zen. 1966 eta 1967. urteen artean, ETA Berri sortu zen. 1970. urtean beste talde batzuk sortu ziren.

Langileriaren alde zegoen ETAREN alderdiak, marxismora hurbiltzen zena eta eragin politiko handiagoa zuenak, independentzia nazionala bultzatzen zuenak baino indar gehiago lortu zuen.

Frankismoaren bukaeran euskal gizartearekin komunikatzeko aukera eman zen. Lehenengo eta behin, 1936-1937 inguruan ezarritako euskal abertzaletasunaren sinboloen inguruko debekuak kendu ziren. Bestalde, euskal presoen aldeko amnistia onartzen bazen bortizkeria bukatuko zela eta bakea ezarriko zela uste zen. Baikortasun honen aurrean ETAREN ideologia agertu zen. Honen ideiak espainolismoaren aurkakoak ziren eta baita poliziak galdeketetan erabilitako torturen kontrakoa ere. Arazoak areagotuz, ETA bi zatitan banatuta³ heldu zen trantsizioa: ETA Politiko-militarra eta ETA Militarra. ETA Politiko-militarraren azkeneko ekintza terroristak Berzadiren bahiketa eta heriotza, ezetza Konstituzioari eta baiezkoa Estatutuari izan ziren. ETA militarrek espainolismoaren aurkako ideiak bultzatu zituen eta gero eta atentatu ikusgarriagoak egiten saiatu zen. Bi adar hauen artean oreka eman zen, hasiera baten ETA Politiko-militarraren aldekoa zena baina 1977. urtean ETA Militarren alde agertu ziren *Bereziak* deitutako komandoei esker. *Bereziak* ETA Politiko-militarretik banatu ziren honek egitura armatuari aparailu eta alderdi politiko bat (EIA, gero EE izango zena) gehitu zionean. Urte hauetan, politiko-militarrek atentatuak egiten jarraitu zuten, bahiketa eta hilketak bortitz batzuekin batera, baina pixkanaka armak uzteko bidea hartu zuten. Egoera hau errealitate bihurtu zen 1982. urtean, UCDko gobernurekin izandako negoziaketan ostean (Bazan, 2002: 624).

Bitartean, 1977. urtean ETA Militarra bere bidea berreraiki zuen oinarri indartsu batekin, 1992ra arte berdin iraun zuelarik. Bere zuzendaritza-batzordeko kideak Domingo Iturbe (*Txomin*), José Antonio Urrutikoetxea (*Josu Ternera*), Eugenio Etxebeste (*Antxon*) eta José Miguel Beñaran (*Argala*) izan ziren. ETA eta EAJren tentsioz betetako harremanen anekdota gisa, Arzalluz Txomin Iturberekin, Josu Urrutikoetxearekin eta Eugenio Etxebesterekin bildu zenean gertatutakoa gogoratu dezakegu. Antxonek esan zion: «Erratu zarete. Gurekin bazatozte irabaziko duzue». Arzalluzek erantzun zion: «Eta ez badugu irabazten». Horrekin elkarrizketa bukatu zen (Sala, 2005: 22).

Bereziak, garai honetara arte ETA Politiko-militarraren parte zirenak, komando ugari eman zizkioten ETA Militarri, eta honi esker atentatu gehiago egin ahal izan zituzten. ETAK aurre egin zion gobernu espainolari laurogei komando martxan jarritz eta, horrez gain, beraien "santutegi frantsesa" bere mugimenduak libre egiteko aprobeztatzen zuten, polizia frantziarrak ez zielako oztoporik jartzen (Bazan, 2002: 625). Gasteizen, 1976ko martxoaren 3an gertatutako ekintzak, San Ferminetako gertakizunak (poliziaren tiro baten erruz hildako gazte bat kontutan hartuz) eta etengabeko hilketak manifestazio eta kontrol polizialean, argi erakusten dute bi bandoen (Estatua eta ETA) arteko borroka benetakoa zela. Egoera honi muturreko eskuineko talde batzuek (A hirukoitza, "Batallon Vasco Español"...), burututako atentatuak batu behar zaizkio. Atentatu hauek ETA kide ugariaren eta Frantziar errefuxiatutako euskaldun ugariaren kontra burutu ziren. Gai honen inguruan Jon Idigorasek honakoa esan zuen:

³ 1974an gertatu zen ETAREN zatiketa hori.

«Bortizkeriaren ukatzea» izan zen Madrilek Euskadiko indarrei jarri zien lehengo baldintza, Lege Antiterroristarekin bat eginik. Argi denez, bortizkeriaren kontrako ukatze hau ETArenganako zen, bitartean okupazio indarrak, Guardia Zibila, Polizia Nazionalea eta Espainiako armada, nahi zutena egiten zuten terrorrea eta heriotza hedatuz Euskal Herriko hiri eta herri guztietan. Aldi berean, Euskal Herriko iparraldean Batallon Vasco Españolak, A hirukoitzak edo ATEk ezker abertzalearen kontrako hilketak eta atentatuak burutzen zituzten Martin Villaren onarpenarekin. Barne ministroak, Martin Villak, Euskal Herria poliziaz eta militarrez beteko zuen Lege Antiterrorista sortu zuen. Hemendik aurrera, atxilotetak, torturak, hilketak polizien kontroletan eta presoenganako errepresioak ohikoak bihurtu ziren. Amnistia Legea baino urtebete lehenago kartzelak bete ziren. Horrez gain, abertzalearen inguruko isiltasuna gorde behar izan zuen. Hau guztia Konstituzioaren erreferendumerako prestakuntza izan zen, urte horretako abenduan burutu zena» (Idigoras, 1999: 321-323).

Frankisten kontrako alderdi ezberdinen ikuspuntua edo jarrera gero eta argiagoa zen trantsizioa pasa ahala. 1977. urteko urrian Gorteetan amnistia orokorra onartu zen eta euskal preso guztiak askatu zituzten.

ETA Militarra isilpeko edo ezkutuko taldea bihurtu zen, ekintza militarrek ideologia gainditu zutelarik. Era berean, egitura edo armazoi sozial eta politiko bat sortuz joan zen ETArene eta KAS koordinadorearen pean, eta alderdi politikoak (HB), gazte taldeak (Jarrai), sindikatuak (LAB), feministak, kirol taldeak, ekologistak, eta abarrak sartu ziren honen pean. Erakunde honen ideia nagusia Estatu hormaren kontra edukitzea zen, ez zuen Estatu garaitu nahi, ezinezkoa zela baitzekien, negoziazio politikoa bilatu baizik. Taldearen ustez, Estatuak KAS alternatiba onartu behar zuen. KASen alternatiba hau 1976. urteko agiri bat zen eta ETA Militarrek 1978. urtean onartu zuen. Agiri honek Nafarroa Euskadiren barruan sartzea, ordena publikoaren indarrak kanporatzea, euskalduntzea, autodeterminazioa, langileriaren bizi baldintza hobetzea, etab. eskatzen zuen.

1977ko apirilean eta maiatzean Xibertan elkarrizketa batzuk burutu ziren. Bost elkarrizketa hauei *Euskal Goi-Bilera* deitu zitzaizkien eta alderdi ugari eta zenbait pertsonaiek parte hartu zuten, hala nola, ANV, EHAS, EIA, EKA, ESAB, ESEI, ES, LAIA, EAJ, ETA Militarra, ETA Politiko-militarraren bi adarrak (ofiziala eta *Bereziak*), Alkate Taldea, Mirentxu Purroy (*Punto y Hora* izeneko aldizkariaren zuzendaria) eta Telesforo Monzon (oraindik EAJren afiliatua, baina abertzaletasun erradikalera lotuta zegoenez, HBn sartzen bukatu zuen). Elkarrizketa hauetako akten arabera ez zen malgutasunik antzeman alderdien artean, bakoitzak bere ideiak mantendu zituelako, eta eztabaida nagusia hauteskundeetan aurkeztea ala ez izan zen. Elkarrizketa hauetan EAJk ETARI armak uztea eta bere helburuak hauteskundeetan bidez lortzea eskatu zion. ETA Militarrek ez zuen bere ideiak aldatzeko inolako keinurik egin eta EAJk ez zuen PSOArekin erbesteko hainbat urtetan lortutako joko demokratikoa apurtzeko gogorik. ETA Militarrek adierazi zuen hauteskundeetan abstentzioa bultzatzen zuela eta ideiaz aldatzeko era bakarra amnistia lortzea zela.

Maiatzaren 10ean José Luis Elcoro, EAJko ordezkari batzuk, ANV, ESB, EHAS eta ESEI Madrilerara joan ziren egoeraren larritasuna Suárezi azaltzera. Elcorok esan zion amnistia ez bazen betetzen hauteskundeak boikotatuko zirela eta ETAk eraso larriak burutuko zituela. Honi Suárezek erantzun zion: «Ni ahula naiz eta ezin dut horrelako erabakirik hartu, ondorioak ezin izango ditudala kontrolatu eta demokrazia arriskuan jarriko zela jakinda» (De Pablo, Mees, Rodríguez Ranz, 2001: 343). Hala ere, adierazi zuen zenbait preso garrantzitsu kartzelatik aterako zituela, hala nola, Mario Onaindia eta Teo Uriarte. Suárezekin izandako elkarrizketa honen ondoren hurrengo goi-bileran eztabaida larriak egon ziren. KAS eta ANVk Suárez

kritikatu zuten esanez presoak gatibu bezala izango zituela euskaldunei boterea ez emateagatik. Kritika latzenak ETA Militarrek burutu zituen, Suárezek ez zuela ezer egingo esanez. ETA Militarreko ordezkari batek, *Argalak*, proposamen bat egin zuen egoera hobetzeko: hauteskundeak baino bi aste lehenago amnistia ez bazegoen sinatuta alderdi guztiak hauteskundeetatik kanpo geratuko ziren. Horren trukean armen tregua ekainaren 1era edo 8ra atzeratuko zuten. ANVk, ESBk, EKAK eta Elcorok proposamena onartu zuten baina EHASK eta ETA Militarreko bi kidek ez zuten hori onartu. EAJK, ESEIk eta ETA Politiko-militarrak proposamena pentsatzeko denbora eskatu zuten. Hurrengo batzarra baino lehenago Amnistiaren aldeko Astea ospatu zen eta honetan hildako batzuk egon ziren poliziaren aldetik. ETAK hauteskundeetatik at geratzea eskatu zien alderdiei baina EAJK ezetza eman zuen, bera hauteskundeetara aurkeztuko zela herriari zor ziolako esanez (*Ibid.*: 344). Mario Onaindiak garai honetako bere oroitzapenetaz hitz egiten digu:

«Trantsizio niretzat 1977. urteko maiatzaren 20an hasi zen. Igande goiz baten Juan Mari Bandrés agertu zen Kordobako kartzelan. Sei urte pasa ziren nik azkeneko aldiz abokatu bat ikusi nuenetik. Eta bazetorren oso enkargu garrantzitsuarekin guretzat. Kontatu zidan aurreko egunean mitin baten egon zela Markinan eta bukatzerakoan Suárezen dei bat jaso zuela esanez Madrilera joatea berarekin hitz egitera. Gobernuko presidentek bere dilema azaldu zion: gelditzen ginen euskal presoak ezin genuen kartzelan jarraitu Euskadin egoera oso latza zelako (egun haietan bost hildako egon ziren poliziaren eskutik amnistiaren aldeko manifestazioetan) baina ezin ginen atera armadaren presioarengatik. Suárezek dilema euskal presoek konpontzea nahi zuen. Eskaintzen zigun irtenbidea atzerritzea onartzea zen eta, horrela, Belgikara, Austriara... alde egitea.

Argi denez, Kordoban geunden presoak esan genion ez ginela gai horrelako erabakirik hartzeko eta lan hori bi ETAK edo KASEk burutu behar zutela. Bandresek esan zigun Euskadin ez zegoela erabaki hori hartzeko instantziarik eta bi ETAK guk erabakia hartzeko esaten zutela. Gure bizitzako erabakirik garrantzitsuena izan zen, edo kartzelan geratzen ginen desoreka estrategia batengatik eta atzerritzea ezeztatuz, edo, alde egiten genuen Euskadik normalizazio prozesu bat izan zezan eta, horrela, hauteskunde orokorretan parte hartu ahal zango zuen (...).

Gauzak horrela zeudela, Kordobako presoak erabaki genuen atzerritzea onartzea, Euskadiko egoera hobetzeko helburuarekin. Era horretan euskal herritarrek ordezkari politikoak izango zuten eta Konstituzio demokratiko bategatik eta autogobernuagatik, hots, Gernikako Estatutuagatik, borrokatu ahal izango zuten» (Ugarte, 1998: 195-196).

ETA eta EAJren artean haustura eman zen eta horren ondorioz, EAJ ez zen azken bi elkarrizketetara agertu. Azkeneko elkarrizketa hauetan haustura handia ikusi zen, alde batzuk hauteskundeen alde baitzeuden eta besteak kontra. Ondorioz, EAJK, Euskadiko Ezkerrak (ETA Politiko-militarrekin lotuta zegoena) eta beste talde nazionalista txiki batzuk hauteskundeetan parte hartzen zuten bitartean, ETA Militarrek hauteskundeetan parte ez hartzea erabaki zuen, egitura frankistak oraindik mantentzen zirenez, hauteskunde libreak ez zirela argudiatuz. Xabier Arzalluzek elkarrizketa hauei buruz honakoa dio:

«Alderdi eta alderditxo guztiak batu ginen baita bi ETAK eta, baliteke, "Comando Autonomo Anticapitalistak" ere (...) Bilera hau alderdi nazionalisten ekimena izan zen eta helburua Estatuari eskakizun berriak eskatzea zen. Bitartean, ez zen zertan hauteskundeetara aurkeztu behar (...) Ez geunden ados. Hauteskundeetara aurkeztu nahi ginen. Niri, ETAK eskutiz bat bidali zidan, aizkora, suge eta guzti horrekin. Eskutitzean gezurra esan niela leporatu zidaten. Guztia gezurra zen. Hasieran beldur izan nintzen baina laster lasaitu nintzen» (Sala, 2005: 22).

1978 eta 1980. urteen artean, Konstituzioa eta Gernikako Estatutua onartu ziren urteetan, ETAk aurreko garaietan baino atentatu gehiago egin zituen. Zenbakiak oso argiak dira: 1976. urtean 17 pertsona hil zituen eta 1977. urtean 12. 1978. urtean hildakoak 63 izan ziren, 69 1979. urtean eta 85 1980. urtean. Heriotza hauei batu behar zaie ETA Politiko-militarraren 13 hilketak eta ETAtik banatutako beste talde baten, Komando Autonomo Antikapitalisten, 17 hilketak. 246 hilketa burutu ziren guztira urte horietan (Bazan, 2002: 626). Mario Onaindiaren arabera:

«Oso bitxiak dira ETAREN ekimenak. 75, 76 eta 77. urteen artean atentatu gutxien egon ziren Euskadin beste garai batzuekin konparatuz. Nahiz eta Estatuaren errepresioa oso handia izan, Txiki eta Otaegiren heriotza, etab. ETAK uste zuen demokrazia helduko zela eta egoera berrira egokitu behar zela. ETA Politiko-militarraren VII Asanblada ospatu zen, ETA Militarreko kideak ere parte hartu zutelarik, eta bideoz grabatu zen. Horrek esan nahi du gehienak uste zutela klandestinitatetik aterako zirela eta etxera bueltatuko zirela. Asanblada honetatik atera zen alderdi politiko bat sortzeko ideia, EIA. Alderdi hau txapela gabeko ETA izango litzateke» (Ugarte, 1998: 195).

EAJk aurreko garaietan ez zituen begi onez ETAREN atentatuak ikusi baina ez zituen guztiz kondenatzen. Xibertako porrotaren ostean heriotza guztiak kondenatu zituen, hala ere, kondena hildako pertsonaren arabera zen (De Pablo, Mees, Rodriguez Ranz, 2001: 346). Dena den, EAJk, 1979. urteko otsailean, euskal errefuxiatu batzuen atxiloketen kontra agertu zen. Bestalde, EAJ pixkanaka nazionalismo erradikaletik urruntzen saiatu zen indar politikoen indarkeriaren kontrako protestak burutuz, beti ere KASen eredutatik desberdinduta. EAJk terrorismoaren kontra zeukan dilema handiena 1978. urteko urrian eman zen. Alderdia, Konstituzioko erreferendumean abstenitzeaz gain, bortizkeriaren kontrako manifestazio bat deitu zuen Bilbon urriaren 28an. Manifestazioak desadostasunak sortu zituen alderdian, EAJk ETAREN kontra burututako lehenengo manifestazioa izan zelako. Honek EAJk atzera egitea eragin zuen, azpimarratuz manifestazioa ez zela ETAREN kontra bakarrik, baizik eta biolentzia guztiaren kontrako, eta adierazi zuen biolentzia jarraitzearen eragilea Gobernu zela. EAJk eskatu zion UCDri manifestaziora ez joatea. ETAK EAJ kritikatu zuen eta HBk manifestazio paralelo bat deitu zuen baina gobernuak debekatu zuen. Gertakizun honek gehiago urrundu zituen EAJ eta ETA.

80ko hamarkadan atentatuen zenbakia jaitsi egin zen aurreko hirurtekoarekin konparatuz eta negoziaketarako bideak zabalduz joan ziren. PSOE gobernura heldu zenean egoera hobetzen saiatu zen ETAREkin elkarrizketa ugari izanez, nahiz eta prentsa aurrean ez onartu, eta poliziaren ekintzak pixka bat mugatuz, "susmagarrien" zenbakia murriztuz (García de Cortazar, Lorenzo Espinosa, 1997: 295). Baina, era berean, ezin dugu ahaztu PSOEren gobernu zela ere GALen estatu-terrorismoa martxan jarri zuena. Izan ere, PSOEek ETAREkin bukatu nahi zuen, edonola.

III. Aurre-autonomia

Xibertako elkarrizketen porrotaren ondorioz, 1977ko ekainaren 15eko hauteskunde orokorrak trantsizioaren barnean gertakari klabea izan ziren, sistema politikoaren oinarriak demokraziaren bidean finkatuko zituelako. Hala ere, ETA Militarraren inguruan zeuden alderdiek hauteskunde hauek boikoteatu zituzten. Hiru probintzietan, EAJ, PSOE eta ESEI elkarrekin aurkeztu ziren *Frente Autonomiko* koalizioa osatuz. Hortaz gain, ETAREN presioaren ondorioz, espainiar zentro-

eskuineko alderdi batzuk ezin izan ziren aurkeztu edo hautagai independente gisa aurkeztu ziren. Berdin gertatu zen karlismoarekin edota ezker muturreko taldeekin.

Arabian eta Nafarroan, hauteskunde horietako partehartzea oso altua izan zen. Baina, Gipuzkoa eta Bizkaian partehartzea txikiagoa izan zen abstentzio handiaren ondorioz. Espainian UCDk irabazi zituen hauteskundeak Gorteen zuzendaritza hartuz. Hauteskundetako bigarren alderdi indartsuena PSOE izan zen. Euskal Herrian, PSOEk, EAJk eta UCDk eserleku ugari lortu zituzten, APk eta EEk ez bezala. Hiru probintzietan boto ez nazionalista gehiengo izan zen (28) baina, Frente Autonomikoaren barruan EAJ izan zen boto gehien lortu zituena. Nafarroan, UCDk irabazi zuen (%28), PSOE bere atzetik geldituz (%21). Nafarroaren egoera Espainiako lurraldeenaren antzekoa zen. Senatuan, Frente Autonomikoa koaliziorik botatuena izan zen.

Hauteskunde orokorrak ospatu ondoren, Konstituzioaren eraketari ekin zioten. Baina, Euskal Herriaren kasuan, aurre-autonomia ezartzeari buruzko eztabaida garatu zen, Karta Magna onartu eta gero burutuko zelarik. Franco hil ondoren, ia euskal alderdi gehienek Gerra Zibilean galdutako autonomia berreskuratu nahi zuten. Hasierako aldarrikapenak ez ziren alderdi politikoen eskutik etorri, udaletatik baizik. 1976. urtean, *Alkateen Taldea* sortu egin zen eta honen burua Bergarako alkatea, Jose Luis Elkoro, izan zen. Honek Juan Carlos I.a erregeari mezu bat bidali zion, non foruak berrezartzea eta autonomia estatutuaren alde agertzea eskatzen zitzaion. Uztailen, 1876ko foru abolizioaren urteurrenean, Bergaran ekitaldi bat burutu zen. Hala ere, udaletxe mugimendu hau pisua galtzen joan zen, alderdi politikoek boterea berreskuratu zuten heinean.

Erreforma politikorako legearen ondoren eta ekaineko hauteskundeak baino lehen, EAJk, PSOEk, ESEIk, ANVk, PCEk eta EKDK maiatzean Autonomia konpromisoa sinatu zuten. Konpromiso honek autonomia eta senatuan kandidatura bat lortzeko aukera ematen zuen. UCDk eta EEk ez zuten ituna sinatu.

Hauteskundeak eta gero, aurre-autonomiako organismo bat eraikitzeko helburua garatu zen. Garai berean, Konstituzio eta Estatutua idazten ari ziren. Ekainaren 19an, Euskal Herriko Parlamentarien Biltzarra eratu zen. Baina Nafarroako UCDk ez zuen onartzen Nafarroa Euskal Herriaren barne egotea. Hilabete batzutan berridatzi ondoren, ekimena alderdi ezberdinek eta Suárezen Gobernuak onartu behar zuten. EAJk eta PSOEk egindako borradorea irailaren 19an berretsia izan zen, EEren abstentzioarekin. Beraz, Gobernuaren onarpena soilik falta zen, baina Nafarroa proiektu horren parte izateak oztopo handia suposatzen zuen. Horrela Nafarroa baztertuz, hiru probintzientzako beste aurre-autonomia bat prestatu zen, non, Nafarroak nahi izanez gero bertan parte hartu zezakeen etorkizun batean. Egoera honen aurrean, UCDk erreferendum bat ospatzeko eskaria egin zuen. Azkenenean, 1977an UCD eta EAJ akordio batera heldu ziren: UCDk Nafarroa hiru probintzietako aurre-autonomiara anexionatzeko aukera onartzen zuen baldin eta EAJk erreferenduma berresten bazuen.

1978ko urtarrilaren 4an, erregimen aurre-autonomikoa eta Euskal Herriko Kontseilu Orokorraren eraketaren dekretua argitaratu zen. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa ziren Kontseiluko partaideak, baina Nafarroak bertan parte hartzeko eskubidea zuen ere. Nafarroa kontseiluan sartzeko beharrezkoa zuen gehiengoaren inguruan arazoak sortu ziren. UCDren ustez, bi herenak beharrezkoak ziren eta

PSOE eta EAJren ustetan, gehiengo soil batekin nahikoa zen. Azken akordioak EAJri eta PSOERI arrazoia eman zien.

Aurre-autonomia onartuta, Euskal Herriko kontseilu Orokorra eratzea izan zen hurrengo pausua. Hala ere, hori egin baino lehen, erbestean egondako Euzko Jaurlaritzarekin zer gertatuko zen jakitea beharrezkoa zen. UCDk disoluzioa eskatzen zuen, baina EAJ horren kontra agertu zen. Azkenean, Parisen egoitza mantendu egin zen, Leizaolaren esku. Kontseilu Orokorra osatzeko, lurralde bakoitzeko ordezkariak aukeratzea beharrezkoa zen. 1978ko otsailean, Gasteizen eratu zen kontseilua: EAJko 5 kide, PSOeko 5 kide, UCDko 3 kide, EEko kide bakarra eta independente bat. Hurrengo arazoa, kontseiluaren lehendakaria aukeratzea izan zen. EAJk Juan Ajuriagerra aurkeztu zuen eta PSOEk, aldiz, Ramon Rubial. Azken honek UCDren laguntza zeukan. Baina, UCDko kide batek (Juan Etxebarria) ez zuelako Ramon Rubial bozkatu nahi eta EAJren hautagaiari bozkatu nahi zuelako, berdinketa suertatu zen. Azkenean alderdiak bultzatuta, Juan Etxebarriak zuria bozkatu zuen, horrela, Ramon Rubialek irabazi zuen. EAJk kontseiluarekiko interesa galdu zuen eta erbestean gobernua mantendu zuen.

IV. Konstituzioa Euskal Herrian

Kontseilua eratuta egon aurretik, 1977an, aukeratutako Gorteen betebeharretako bat Konstituzioaren prozesuaz arduratzea izan zen. Interes handia zabaldu zuen horrek etorkizuneko autonomiaren zehaztapena baldintzatuko zuelako. Konstituzioaren komisia 36 diputatuaz osatuta zegoen eta horietako bat, Xabier Arzalluz izan zen. Abuztuaren 1an, Komisia aukeratuaren idatzeko partaideak hautatu zituen: UCDko hiru kide, PSOeko bat, APko bat, PCKo bat eta euskal-kataluniar gutxiengoa ordezkatzeko kide bat (Miquel Roca). Parlamentuak, gortea hamabost kidez osatua egon behar zela eskatzen zuenez, EAJ ez zegoen komisia horren barnean. Miquel Rokak EAJren ikuspuntua defendatzen saiatu zen baina, ez zuen ezer lortu.

1977ko abenduan, komisiari aurre-proiektua entregatu zitzaion eta handik aurrera, talde parlamentarioek araudia aldatzeko euren zuzenketak aurkez zituzketen. 1978ko urtarrilean, EBBk eta euren parlamentariak 101 zuzenketa aurkeztu zituzten. Hauen zuzenketa batzuk onartuak izan ziren baina, euskal eskubide historikoen onarpenaren inguruan oinarritzen zena ez zen berretsia izan. Zuzenketarik garrantzitsuenak 689a izan zen, Xabier Arzalluz eta Mitxel Unzuetak idatzitakoa. Zuzenketa hori, foruak abolitutako legeak indargabetzean (1839koa eta 1876koa), jatorrizko erakundeak lau lurraldeei itzultzean eta koroarekin izandako paktu forala mantentzean oinarritzen zen. Horrela erresumak lurralde bakarra eta erakunde komunak sortuko zituen.

1978ko maiatzaren 5an, Komisia aurreproiektua eztabaidatzen hasi zen. Bigarren artikulua onarpena eman zen, non, Espainiar nazio bakarraren barnean nazionalitate eta eskualde ezberdinen existentzia onartzen zen. Horren ondorioz, EAJko parlamentariak alde egitea erabaki zuten. Arzalluz eta Suárezek horri buruz eztabaidatu zuten; zuzenketa hori aldatzea zen irtenbide posible bat:

«Konstituzioak Arabako, Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiko foru eskubide historikoak onartzen eta bermatzen ditu, errejimen autonomikoan euren zehaztapena emango da lurralde hauetako erakunde ordezkariak adostuz. Hori horrela izanda, Estatuak bere

lehiakidetzarako materiak emateko eta transferitzeko eskubidea izango du» (De Pablo, Mees, Rodriguez Ranz, 2001. 356).

Baina, EBBk ez zuen zuzenketa aldatu nahi, eta batzarrean jarraitzea agindu zien. Bertan ezin zuten onarpenik adostu eta negoziatzen jarraitu behar zuten, honako formula proposatu zelarik:

«Konstituzioak Euskal lurraldearen eskubide historikoak errespetatu eta babesten ditu. Foru errejimen honen eguneratze orokorra Konstituzioaren markoaren eta autonomia estatuaren bitartez burutu egingo da» (*Ibid.*).

EAJren zuzenketak ez ziren onartu. Honen aurrean, EAJko ordezkariak batzarretara ez agertzea erabaki zuten. Ekainaren 20an Garaikoetxeak zuzenketa ez bermatzea agindu zuen baina, Arzalluzek bozkatzerakoan baiezkoa eman zuen. Badirudi, UCDko Jose Pedro Perez LLorcak Arzalluzi mehatxatu ziola EAJk komisioren alde egiten ez bazuen adostutako xedapen erantsia kenduko zela esanez. Horrek, Konstituziotik eskubide historikoak desagertzea suposatzen zuen. Hori dela eta, Garaikoetxea eta Arzalluzen arteko banaketa eman zen. Carlos Garaikoetxeak garai honetako bere oroitzapenetaz hitz egiten digu:

«Arzalluzek ezin izan zuen jasan Gortean bizi izan zen presio giroa eta Komisio konstituzionalan EAJk gaitzetsitako eskubide historikoen formula bat berresteko ahulezia izan zuen. Ondoren, alderdi osoaren bilkuran errektifikatzea eskatu zitzaion eta horrela egin zuen. Kongresuaren agirietan eskubide historikoen konstantzia eman zen berari esker. Hala ere, Xabier Arzalluz bere kabuz erabakiak hartzea, eta ondoren, alderditik baztertuta, jarrera biktimista izatea beti gaizki iruditu zait» (Juliá, Pradera, Prieto, 1996: 425-426).

Komisioaren onarpenaren ondorioz, ekainaren 4an Konstituzioaren proiektua Kongresuaren osoko bilkurara pasatu zen eta hilaren 13an, UCD eta EAJren artean negoziaketa berriak hasi ziren. EAJk uste zuenez koroaren paktua kentzean amore eman zuela, 1839 eta 1876ko legeak berrezartzea eskatu zuen. EAJk testu alternatibo bat aurkeztu zuen, non, marko konstituzionalaren erreferentzia kentzen zen, baina UCDk ez zuen onartu. Hurrengo egunean, UCD, EAJ eta PSOE elkartu ziren marko konstituzionalaren erreferentzia antolamendu juridikoarengatik aldatzeko. UCDk aldaketa onartu zuen arren, EAJk EBBn eztabaidatu behar zuen. Hortaz gain, UCDren ordezkariak, EAJk egindako zuzenketa guztiak kentzea, EEK proposatutako autodeterminazioaren kontra bozkatzea, Eusko Jaurlaritzaren desegitea eta EAJ biolentziaren kontrako jarrera argia izatea eskatu zuen. Gainera, EAJk UCDko ordezkariak proposatutakoa eztabaidatzea onartu zuen eta ekainaren 17an, akordioaren terminoak onetsi zituzten. Jelkideek UCDko ordezkariari onespina komunikatu ziotenean, honek jarrera aldatu zuen. Honek Nafarroarentzako esapide berezi bat eta marko konstituzionalan egindako erreferentzia jarri behar zirela esan zien.

Azkenean, Nafarroarena baietsi arren, marko konstituzionalarena zintzilik gelditu zen. Ekainaren 17ko gauean, nazionalistak bildu egin ziren eta gobernuak egindako proposamena onartu zuten. Baina, Arzalluzek Abril Martorell akordioaren emaitza telefonoz komunikatzerakoan, Abrilek akordioa blokeatuta zegoela esan zion. Orduan, EAJ euren zuzenketak defendatzen hasi zen. EAJ prest zegoen autodeterminazioaren kontra bozkatzeko eta Euzko Jaurlaritza desegiteko baldin eta, Bizkaiko eta Gipuzkoako kontzertu ekonomikoak berrezartzen bazituzten. Hala ere, UCDk ez zuen onartu eta horren ondorioz, EAJk kongresutik alde egitearekin mehatxatu zuen. Egun batzuk pasa ondoren, negoziaketak berriro hasi ziren eta

EAJk UCDren proposamenak ontzat eman zituen: 150.2 zuzenketa (Estatuaren konpetentzietatik autonomietara egoteko transferentziaren aukera), autodeterminazioaren kontra eta 2. artikulua (Espainiar nazioaren batasuna) bozkatu behar zuen. Xabier Arzalluzek garai honetako oroitzapenetaz hitz egiten digu:

«Autodeterminazio eskubidearen aldekoak gara eta izan ginen. Baina autodeterminazioa planteatzea alferrikakoa zela uste genuen. Orduan, euskal foruen abolizioaren aurreko garaira itzultzea planteatu genuen. Gure zuzenketa Espainiako herrialdeei buruz aritzen ziren baina, ez Espainiar herrialdeari buruz... Hori ez genuen inoiz onartuko!» (*Ibid.*: 316-320).

Uztailaren 21ean, 150.2 zuzenketa onartua izan zen eta EAJrentzat arrakasta handia suposatu zuen. EAJk proposatutako zuzenketa kontrako bozkatu eta UCDrekin paktatutako zuzenketa *in voce* aurkeztu zuen. Horren ondorioz, 153 botoengatik zuzenketa ezeztatua izan zen. Hortaz gain, UCDko diputatu batek, Miguel Herrero Rodriguez Miñonek, 1839 eta 1876ko foruen kontrako legea ezeztatzea proposatu zuen. Zuzenketa honek, Arzalluzek eta Unzuetak aurkeztutako 689. zuzenketa kutsu berdina zeukan. Azkenean, zuzenketa kongresuan berretsi eta Konstituzioan sartu egin zen.

Kongresuan Konstituzioaren testua ontzat eman eta gero, Senatuan eztabaidatu behar zen. Orduan, nazionalistak Senatuaren adostasun konstituzionalaren parte izateko, UCD, PSOE eta EAJ uda osoan negoziatzen egon ziren. Eztabaida UCDko diputatu nafarrak egindako eskarrietan oinarritzen zen: testuan Nafarroaren berezitasuna argi gelditzea nahi zuen. Bere aldetik, EAJk PSOEren laguntza eskatu zuen Senatuan bere proposamena sartzeko: Konstituzioaren barnean, euskal lurraldeak nolabaiteko federalismoa izatea. Irailaren 14an, senatuko komisiok onartu egin zuen; EAJrentzat UCDren gaineko nolabaiteko garaipena izan zen.

Irailaren 24an, Gasteizen Alderdi Eguna ospatu egin zen eta Arzalluzek esandako hitzek PSOEko parlamentarien laguntza galtzea eragin zuten: «Euzkadi Madrilaren zapataren pean urte bat baino gehiago daramatza» eta ezin zuela «gure larretatik hazitako gariarekin egindako ogi-koskor bat» izango zen autonomia onartu. Gai horri buruz, irailaren 27an EBBn aritu egin ziren eta alderdiaren nolabaiteko banaketa eman zen. Ondorioz, jeltxuek Konstituzioaren kontra edo zuriz bozkatzeari erabaki zuten. Azkenean, urriaren 31n Gorteetan Konstituzioa berretsi egin zen eta erreferenduma ospatu zen.

Euskal Herriari eragiten dioten Konstituzioaren artikulua garrantzitsuenak *nazioaren batasuna eta autonomiarako eskubidea*, eta *gudasailarena* dira, hots, bigarren eta zortzigarren artikulua:

2. artikulua⁴

Konstituzioa Nazio espainiarren banaezinezko batasunean oinarritzen da, hura espainiar guztien aberri arrunta eta banaezinezkoa delarik, eta hurrengo hau berrezagutu eta bermatzen du, hots, Espainia osatzen duten nazionalitate eta herrialdeen autonomiarako eskubidea eta denon arteko lagunkidetasuna.

⁴ESPAINIAKO KONSTITUZIOA. Gorteetan, 1978ko urriaren 31an onartua. Lege-gordailua: M. 35.392-1978. Sucesores de Rivadeneira, S.A.

8. artikulua⁵

1. Indar Armatuak, lehor, itsas eta aireko armadak osaturik betebeharrak bezala Espainiaren subiranotasuna eta independentzia, lurralde osotasun araugintz Konstituzionala zaintzean datza.
2. Lege organikoak erakunde militarren oinarriak arautuko ditu aurreko Konstituzioko funtsen arabera.

Jon Idigorasen ikuspuntua artikulua horri buruz honako izan zen:

«Gobernu Espainiarrak eta oposizioa euskaldunak Konstituzioren artikulua hauek onartzea nahi zuten. 8. artikulua erasotzen gintuen: Indar Armatuak Espainiar subiranotasuna eta independentzia bermatu behar zuten» (Idigoras, 1999: 324-325).

1978ko abenduaren 6an erreferenduma egin zen, alderdi gehienek baiezkoa bozkatu. EAJk eta ESEIk abstentzioaren alde egin zuten eta muturreko eskuinak eta ezker abertzaleak, aldiz, ezezkoa bozkatu zuten. Euskal Herriko abstentzioa, Espainiakoarekin alderatuta, oso altua izan zen eta probintzien artean ezberdintasunak egon ziren: Gipuzkoa eta Bizkaiko abstentzio altuagoa izan zen %56 eta Araba eta Nafarroan abstentzio txikiagoa izan zen, %41 eta % 33 hurrenez hurren.

2. Taula: Konstituzioren erreferendumaren emaitzak

	BAI	EZ	ABSTENTZIOA	ABST. + EZ
<i>Gipuzkoa</i>	% 27.75	% 12.95	% 56.56	% 69.51
<i>Bizkaia</i>	% 30.93	% 9.41	% 55.44	% 64.85
<i>Araba</i>	% 42.33	% 11.38	% 40.71	% 52.09
<i>Nafarroa</i>	% 50.38	% 11.29	% 33.42	% 44.7

Iturria: LOPEZ de JUAN de ABAD, J.M., *La autonomía vasca: Crónica del comienzo*. Txertoa. Lizarra, 1988. 177. orr.

Arzalluzek honela azaltzen du zergatik EAJk abstentzioaren alde egin zuen:

«Lege hori ez zen geurea eta geurea izan gabe jarraitzen du, noski; baina bazituen eta oraindik baditu alde positiboak eta ezin geniei uko egin» (Sala, 2005: 22).

Aldiz, honakoak dira Jon Idigorasek garai horri buruz zituen oroitzapenak:

«Espainiar Gobernuak Konstituzioren aldeko kanpaina handia egin zuen. Irratian, telebistan, Espainiar komunikabide guztietan, Konstituzioari buruzko alameda eman ziguten, euskaldunei konstituzioari baietza ematea eskatzen zitzaigularik. Azkenean, espero genuena suertatu zen: komunikabideen bonbardaketa, eta mehatxuak eman arren, euskaldunok Konstituzioa ukatu genuen abstentzio aktibo edo ezezko argi eta erabateko baten bitartez.

Alderdi konstituzionalistek, Suárezen Gobernuak eta Barne ministroak ez zuten ondo hartu euskal gizartearen gehiengoak Konstituzioa ez onartzea, eta are okerrago hartu zuten Herri Batasunak, eta ezker abertzaleak eta ETA erakundeak poliki-poliki lortzen ari ziren indarra. Azken honek polizien aurkako jarduerak eta potentzia eragileak ugaritu zituen. Orduan Martin Villak Terrorismoaren Aurkako Legea eta bere hamabost puntu ezagunak martxan jarri zituen» (Idigoras, 1999: 324-325).

Azkenik, Carlos Garaikoetxeak hauteskunde horien emaitzei buruzko bere oroitzapenez hitz egiten digu:

⁵ *Ibid.*

«Euskal Herriak Konstituzioa gaitzetsi zuela eta gainera, modu konziente batean egin zuela bene-benetan uste dut» (Juliá, Pradera, Prieto, 1996: 426).

V. Euskal lurraldeen zatiketa autonomikoa: Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa

Trantsizioan euskal autonomia baten gaia eztabaidatzen hasi zenetik, Nafarroaren arazoa agertu zen, hots, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoarekin batera euskal erkidego horretan egon behar zen edo ez. Era guztietako iritzia egon ziren: euskal alderdi abertzaleak hegoaldeko lau euskal probintziek elkarrekin erkidego bat osatzea defendatzen zuten; UCDk, berriz, ez zuen begi onez ikusten Nafarroa Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabarekin elkartzearen kontu hori, eta ezin dugu ahaztu alderdi hori zela estatu espainiarreko gobernuan zegoena eta gehiengoa zuena Nafarroan; PSOEk, zalantza batzuen ostean, Nafarroa euskal autonomiatik kanpo gelditzea defendatu zuen.

Hegoaldeko euskal probintzien batasunaren aldeko alderdien eta UCDko gobernu espainiarren arteko negoziaketetan adostasunik lortu ez zenez, euskal lurraldeek bide ezberdinak jarraitu zituzten: 1979ko Gernikako Estatutuarekin Bizkaia, Araba eta Gipuzkoak Euskal Autonomia Erkidegoa sortu zuten; eta Nafarroa, estatutu mailarekin onartutako Foru Erregimena Berrosatu eta Hobetzeko Lege Organikoaren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoa bihurtu zen.

V. 1. Gernikako Estatutua Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat eta EA Eren sorrera

Konstituzioa onartu ondoren, euskal Estatutuaren proiektua Gorteetan aurkez zitekeen. Estatutu horrek EAJ, ESEI eta EEren oniritziak gozatzen zuten, nahiz eta alderdi horiek ez zuten Estatutuaren oinarri izango zen Konstituzioa onartu. 1978ko azarorako, testua idazteko ardura zuen ponentzia osatua zegoen. Alderdi guztietako ordezkariak zeuden⁶, HBren salbuespenarekin, prozedurarekin ados ez egoteagatik kanpo gelditu baitzen.

Estatutuaren lanketa (EAJ, PSOE, EE eta ESEIren artean adostua, eta UCDk erreserba batzuekin onartua) azkartasun handiz gauzatu zen. EAJren testua hartu zen oinarritzat; PSOE eta EEren testuak ere kontuan hartu ziren, baina maila askoz apalagoan. Gainontzeko proposamenak nahiko bazterturik gelditu ziren.

Abenduaren 29an Gernikan bildutako Legebiltzarkideen Batzarrak proiektua onetsi zuen eta egun berean Diputatuen Kongresura eraman zen, Kataluniako Estatutua iritsi baino ordu batzuk lehenago. Bi arrazoiek eragin zuten euskal Estatutuaren lanketa hain arin gertatzea: alde batetik, Kataluniako Estatutuari aurreratu nahia, eta bestetik, Suárezek, Konstituzioa onartua izan ondoren, Gortek

⁶ EAJko bost ordezkari: Xabier Arzalluz, José Ángel Cuerda, Carlos Garaikoetxea, Kepa Sodupe eta Emilio Guevara; PSOEko bost ordezkari: José María Benegas, José Antonio Maturana, Enrique Iparraguirre, Carlos Solchaga eta Luis Alberto Aguiriano; UCDko hiru ordezkari: Juan Echevarria, Jesús María Viana eta Jaime Mayor Oreja; EEko bi ordezkari: Juan María Bandrés eta Mario Onaindia; ESEleko ordezkari bat: Gregorio Monreal; APko ordezkari bat: Pedro Mendizábal; Independenteen ordezkari bat: Juan María Vidarte; Legebiltzarretik kanpo zeuden taldeen bi ordezkari: PCEko Roberto Lertxundi eta EKAko Mario Zufía.

desegiteko eta 1979ko martxoaren 1erako hauteskunde orokorrak deitzeko zuen asmoa.

Bozketa horiek berrikuntza batzuk ekarri zituzten, 1977koekin alderatuz gero: Senaturako Frente Autonomikoa hautsi zen, HBk eta Nafarroako UPNk lehen aldiz parte hartu zuten hauteskundeetan, etab. HBren sorreraz gerotik alderdi bakar batek ere abstentzioa eskatzen ez zuen arren, partehartzea probintzia guztietan jaitzi zen, 1977koarekin erkatuz. Diktadura luze baten ondorengo lehen hauteskundeetan egon zen zoramen demokratikoak behera egiten ari zela zirudien. Bestalde, 1977an gertatu ez bezala, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian boto nazionalistek boto ez nazionalistak gainditu zituzten. Gertatutakoaren eragile nagusia HB alderdia izan zen, aurkeztu zen lehen hauteskundeetan 175.000 boto lortu zituelarik lau probintzietan, EAJri pisua eta garrantzia galdu araziz. Hala ere, HBk sistemaren aurkako bere izaera azpimarratuz, Gorteetara ez zela joango iragarri zuen. Jon Idigorasen ustez, ezusteko galanta hartu zuten gainontzeko alderdiek HBren emaitza onen berri izatean. Bere hitzetan:

«Martxoaren 1eko gaua ondo daukat gogoan. Emaitza partzialen berri ematen zuten heinean, telebistan agertzen zirenen aurpegiak aldatuz joaten ziren. Martin Villa ministroa behin betiko emaitzak emateko pantailan agertu zenean, eta Herri Batasunaren emaitzak emateko ordua iritsi zenean, Arias Navarrok "Franco ha muerto" esatean jarritako aurpegia oroitarazi zidan aurpegia jarri zuen.

Herri Batasuna (...) Baskongadetako hirugarren indarra zen, 152.000 boto eta senadore bat lortu zituen, baina gainera, denen harridurerako, 23.000 boto lortu zituen Nafarroan. Guztira, 175.000 boto, Euskadiko Ezkerrak lortutakoen ia bikoitza» (Idigoras, 1999: 330).

Hauteskunde horien emaitzek Nafarroaren eta hiru probintzien arteko ezberdintasunak azpimarratu zituzten, Araba nolabaiteko tarteko jarreran zegoelarik. Nafarroan, hein handi batean, 1977ko emaitzak errepikatu ziren: UCDk lortu zuen garaipena (%32), bere atzetik PSOE gelditu zen (%22) eta ondoren, bi alderdi berriak kokatu ziren: HB eta UPN, lehenak emaitza hobekia lortu zituelarik. Araban UCDk irabazi zuen berriz, bere atzetik EAJ gelditu zelarik. Bizkaia eta Gipuzkoan EAJ izan zen boto gehien lortu zituen alderdia eta PSOEren pisua gutxitu egin zen, ezker abertzalearen (HB eta EE) aurrerakadaren ondorioz.

Apirilaren 3an, hauteskunde orokorretatik hilabete eskas bat igaro zelarik, hauteskunde berriak deitu ziren: udal hauteskundeak, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Batzar Orokorretarako hauteskundeak eta Nafarroako Parlamentu Foralerako hauteskundeak. Emaitzetan berriro ere ikusi zen Nafarroa euskal nazionalismoaren Akilesen taloia zela, 30. hamarkadan bezalaxe. Nafarroan nortasun arazo handia zegoen, elkarren aurka gogor zebiltzan nabarrismoaren eta euskal abertzaletasunaren ondorioz. Horrek eragiten zuen Nafarroan HBren aldeko botoak EAJ eta EErenak baino dexente gehiago izatea. Nafarroako Legebiltzarrean, UCD eta PSOE izan ziren boto gehien lortu zituzten alderdiak berriro ere, nahiz eta biek atzera egin zuten UPN eta HBren igoeren ondorioz. Jaime Ignacio del Burgo (UCD) Nafarroako Diputazio Foraleko presidente hautatu zuten eta PSOEek Iruñeako alkatetza lortu zuen HB eta EAJren atxikimenduari esker. Bestalde, hiru probintzietan lortutako emaitza onei esker, EAJk hiru aldundietako presidentziarekin eta hiru hiriburuetakoko alkatetzarekin egin zen.



1. Irudia: Euskal Herriko hautategietako batean botoa ematen.

Hauteskunde orokorren ostean, Legebiltzarkideen Batzarrak Estatutuaren testuari baiespena eman zion. Nafarroako PSOEko diputatuek ez zuten batzarrean parte hartu, hiru probintzietara mugaturik geldituz. PSOEren bira nabarrista hori are nabarmenago bihurtu zen 1982an sozialista nafarrak PSEtik banatu zirenean.

Bestalde, hauteskundeen emaitzekin bat egiten zuen Euskal Kontseilu Orokor berri bat osatzea beharrezkoa zen. Horrek euskal abertzaletasunak pisu handiagoa izatea esan nahi zuen. HB erakunde aurreautonomikoetan partehartzeari uko egiten jarraitzen zuenez, EAJ izan zen garrantzi handiagoa hartu zuena. Horrela, 1979ko ekainean, Euskal Kontseilu Orokor berria osatu zen EAJko bederatzi aholkularirekin, PSOEko lau, UCDko lau eta Eeko bat. Carlos Garaikoetxea buru nazionalistak Ramón Rubial ordezkatu zuen erakunde horren presidente karguan. Horrek, behin Estatutua Gorteetan onartu egin zela, Suárezen Gobernuarekiko negoziaketak zuzentzea ahalbidetu zion EAJri.

Uztailaren 2an Estatutuaren proiektuaren gaineko eztabaida hasi zen Gorteetan, zenbait hauteskundeen ondorioz behin eta berriz atzeratua izan zena. Konstituzioak esaten zuenaren arabera, Estatutua bi hilabeteko epean onartu behar zen; beraz erritmo bizian lan egin behar zen eta hori nahiko zaila zen EAJk nahi zuen maximoen Estatutua eta UCDk gehiegizko autogobernu baten aurrean erakusten zuen errezeloa kontuan hartzen baditugu. Kontzertu ekonomikoen berreskurapena, telebista propioa, Gizarte Segurantza, hezkuntza, ordena publikoa, justizia, Nafarroaren eranspena eta Estatutuaren onarpenak Euskal Herriari bere historiaren arabera zegozkion eskubideei uko egitea suposatzen ez zuela zioen xedapen gehigarria izan ziren, besteak beste, elkarrizketa maratonianoen eztabaidagaiak. Behin betiko akordioa lortzeko funtsezkoak izan ziren Suárez eta Garaikoetxearen arteko negoziaketa zuzenak, izan ere, biek argi zuten Estatutua ez onartzeak euskal trantsizioaren porrota suposatuko lukeela.

Hurrengo pausua erreferenduma burutzea izan zen. Urriaren 25ean egin zen galdeketa, EAJrentzat euskal independentziaren amaiera izan zen 1839ko Foruei buruzko legearen urteurrenean. Beraz, data benetan sinbolikoa izan zen. Euskal

alderdi gehienek (EAJ, PSOE, UCD, EE, PCE, ESEI) baiezkoaren aldeko kanpaina egin zuten. Gutxiengoen alderdi eta ezker eta eskuin muturreko alderdi batzuk izan ziren salbuespenak; APk ezezkoa eskatu zuen, nahiz eta buruetako batzuek baiezkoa eskatu zuten, eta HB, bere ideologia antisistemarekin jarraituz, abstentzioa eskatu zuen, Estatutuak Nafarroa bazterten zuela, autodeterminazio eskubidea errespetatzen ez zuela eta euskal eta espainiar oligarkien hitzarmen bat zela argudiatuz.



2. Irudia: Carlos Garaikoetxea eta Adolfo Suárez, Gernikako Estatutuaren negoziaketan funtsezko izenak.

Jon Idigorasek erreferendumaren kanpaina HBrentzat gogorra izan zela eta gezurrez beterik egon zela gogoratzen zuen:

«Horrela, urriaren 25erako deitua zegoen estatutu-erreferendumaren kanpaina, horrelako iruzurra onartzen ez genuenen kontrako erasoz, kalumniaz eta irainez beterik egon zen. Prentsa, irrati eta telebistaren bonbardaketa, estatutuaren bertuteak goraiatuz, izugarria izan zen. "Ez da ura hain ona izango, bedeinkatu behar denean!" zioen nire herriko pattarrero bat etortzen zitzaidan burura. Arrazoiak zuten gure kasua aztertzen badugu! EAJren eta Euskadiko Ezkerraren delirioa ere ezin dugu ahaztu: "Estatutuarekin, presoak etxera", "Estatutuarekin Nafarroa Euskadin", "Hitz bakarrarekin, Euskadi altxatuko dugu"... Estatutuari baietz esateko kanpainan esandako gezurren zerrenda bukaezina da» (Idigoras, 1999: 334).



3. Irudia: "Txiki" Benegas (PSOE), José Manuel Castells (ESEI), Mariano Zufia (EKA), Jon Gorrotxategi (PTE), Carlos Garaikoetxea (EAJ-PNV), Roberto Lertxundi (PCE), Juan M^o Bandrés (EE) eta Xabier Arzalluz (EAJ-PNV). Aukera politiko ezberdinetako buruak elkarrekin, Autonomia Estatutuaren aldeko botoa eskatzeko, Donostiako Anoeta belodromoan 1979ko urrian.

Erreferendumean, euskal hautesleriaren gehiengoa Estatutuaren alde agertu zen. Partehartzea %60koaren inguruan egon zen eta botoen %90a aldekoa izan zen; soilik %5ak eman zuten ezezkoa. Abstentzio maila altua (%41,2) deigarria da.

3. Taula: Euskal Estatutuari buruzko erreferendumaren emaitzak

	Araba (%)	Gipuzkoa (%)	Bizkaia (%)	Guztira (%)
Hautesleen zentsoa	174930	507002	883609	1565541
Botu-emaileak	110609 (63,2)	302847 (59,7)	507980 (57,5)	921436 (58,8)
Abstentzioa	64321 (36,8)	204155 (40,3)	375629 (42,5)	644105 (41,2)
Baiezkoak	92535 (83,7)	278399 (91,9)	460 905 (90,8)	831839 (90,3)
Ezezkoak	10023 (9)	12290 (4,1)	25216 (4,9)	47529 (5,1)
Zuriak	6363 (5,8)	9018 (3)	16038 (3,2)	31419 (3,4)
Baliogabeak	1688 (1,5)	3140 (1)	5821 (1,1)	10649 (1,2)

Iturria: BAZÁN, I. (zuz.), *De Túbal a Aitor. Historia de Vasconia*. La esfera de los libros. Madril, 2002. 638. orr. Datu ofizialetan oinarritua. Baiezko, ezezko, zurien eta baliogabeko botoen portzentaiak, botu-emaile guztiekiko kalkulatu dira.

Azaroaren 29an Kongresuak Estatutuari baiespena eman zion, aldeko 298 botorekin, hamaika abstentzio eta kontrako zortzi botorekin (AP, UPN eta eskuin muturreko buru zen Blas Piñar). Abenduaren 12an Senatuak testuari onespina eman zion (aldeko 185 boto, aurkako hiru boto eta hiru abstentzio). Errege-onespena jaso ondoren, Gernikako Estatutua *Boletín Oficial del Estadon* argitaratu zen abenduaren 23an.

Horrela, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko autogobernuaren oinarrizko arauak jasotzen zituen Autonomia Estatutua indarrean jarri zen. Testu autonomikoak bost

Tituluetan banatutako 46 artikulua zituen, Xedapen Gehigarri bat eta bederatzi Xedapen Igarokor.

Hasierako Tituluan Autonomia Erkidegoaren izena (Euskadi), bere lurralde eremua (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Lurralde Historikoei osatzen dute Erkidegoa, eta baita Nafarroa ere, elkartzea erabakiz gero, Konstituzioan jasotzen den prozedurari jarraiki), lurralde bakoitzeko erakunde pribatuen onarpena, Ikurrina bandera ofizialtzat hartzea⁷, euskara eta gaztelararen koofizialtasuna, etab. bezalako oinarriko kontuak jasotzen dira.

I Titulua Autonomia Erkidegoaren gaitasunei buruzkoa da. Azpimarragarriak dira Justizia, non EAERI dagozkion kontu juridiko guztien eskusotasuna mantentzen den; Hezkuntza, erabateko kompetentzia onartzen delarik maila guztietan; Ordena Publikoa, polizia-zerbitzu propioen sorrera erabakitzen delarik (Ertzaintza); etab. Estatuaren kompetentzia moduan gelditzen dira kontu extra eta suprakomunitarioak, kasurako, mugen kontrola, aduanak, estradizioak, etab.

II Tituluak EAERI botereak arautzen ditu. Estatuak jasotzen dituen erakunde propioak, edozein gobernu-sistema politikori dagozkionak dira. Lehenik eta behin, Eusko Legebiltzarra, botere legegilea daukana eta Lurralde Historiko bakoitzeko diputatu kopuru berdinez osatua, ordezkari horiek sufragio unibertsal, libre, zuzen eta ezkutuz aukeratzen direlarik; egoera ohikoa bada, lau urtero hautatuko da. Bigarrenik, Eusko Jaurlaritza, botere betearazlea duena eta Legebiltzarrak aukeratutako lehendakariak zuzentzen duena. Azkenik, botere judiziala gauzatzeko, Estatuak Euskal Justizia Epaitegi Gorenaren sorrera jasotzen du (Estatutua onartu eta zertxobait beranduago sortu zena).

III Titulua Ogasunari eta Ondareari dagokio. Erkidegoak Ogasun autonomo bat dauka. Estatuarekiko harreman fiskalei dagokionean, Estatuak Kontzertu Ekonomikoak onartzen zituen; 1980-1981 urteen artean jarri ziren indarrean gobernu estataleko (Suárez) eta autonomikoko (Garaikoetxea) arduradunek sinatutako akordioa eta gero.

Azkenik, IV Tituluak Estatu beraren erreforma burutzeko jarraitu beharreko prozedura jasotzen du.

Batzuek positiboki baloratu zuten Estatuak, une eta egoera horretan lor zitekeen hobereana zelakoan, eta lortutako autogobernua, finantzen eta fiskalitatearen eremuan erabakitako autonomia zabala, erakunde propioak, osasun-sistema berezi eta propioa, Ertzaintza, Kontzertu Ekonomikoak, elebitasuna (euskara hezkuntzaren eta komunikabideen bidez bultzatuz), etab. azpimarratu zituzten. Carlos Garaikoetxearen ustez, kasurako, Estatuak aurrerapauso garrantzitsua suposatu zuen, baina hori ez da euskal errealitatean islatu, testu autonomikoa ez delako behar bezala bete:

⁷ Sabino Aranak diseinatutako bandera Bilboko batzoki batean lehen aldiz altxa zenetik 1894ko uztailaren 14an, Ikurrina zapaldua eta jazarria izan zen askotan, bereziki, Primo de Riveraren diktaduran eta frankismoaren urteetan. 1936ko urriaren 19an Euskadiko behin behineko Gobernuak bandera ofizialtzat hartu zuenetik, Ikurrinak ez zuen tolerantzia eperik ezagutu Franco hil ondorengo urteak iritsi arte. Euskal banderak kartzela eta errepresioa suposatu zuen euskaldun askorentzat, baina azkenean, 1977ko urtarrilaren 19an, legeztatuta egin zen. 1979ko Autonomia Estatuaren bosgarren artikulua Ikurrina Euskal Autonomia Erkidegoaren bandera ofizialtzat aldarrikatu zuen.

«Estatutua pragmatismo handiarekin onartu genuen, euskal nazionalismoak doktrinalki baztertutako Konstituzio batetik zetorren arren, une horretan genuen aukera bakarra zelako. Unea iritsita, euskal nazionalismoak ez zuen tontakeriarik egin nahi izan (...) Estatutuak epe historiko garrantzitsu batean joko handia eman zezakeela pentsatzen nuen. Baina ez da hori gertatu, Estatutuari balioa kendu diotelako nabarmenki (...) Zalantzarik gabe, aurrerapauso handia suposatzen du 1936ko Estatutuarekin alderatuta, euskal naziotasuna era esplizituagoan jasotzen da eta Nafarroari esparru horretan parte hartzeko aukera argiagoa ematen zaio. Baina berriro diot, beste kontu bat da gero Estatutuarekin egin dutena» (Juliá, Pradera, Prieto, 1996: 427).

Euskal abertzaletasunaren sektore batzuen ustez, ordea, Gernikako Estatutua ez zen nahikoa eta ez du Euskal Herriaren egoera hobetu. Izan ere, euskarak zailtasun handiak izan ditu bere normalkuntzarako eta ez da frankismotik datorren diglosi egoerarekin bukatu, konpetentzien transferentziari muga handiak jarri zaizkio, mendekotasun politikoa mantendu da, Nafarroa EAetik kanpo jarraitzen du, etab. Alderdi horien ustez, Gernikako Estatutuarekin, onartua izan ez zen espainiar Konstituzioa indarrean jarri zen EAEn. Hori izan zen, esate baterako, Jon Idigorasek egindako balorazioa:

«Egun horietan, gure harritzeko gaitasuna probatu nahi zutela zirudien. Adibidez, EAJ-PSOEn hitzarmen aurreautonomikotik, Nafarroa ere barne hartzen zuena, Euskal Kontseilu Orokor baten onarpenera pasa zen, horrek soilik Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba kontuan hartzen zituelarik; edo espainiar Konstituzioaren gaineko jarrera abstentzioa izatetik, gorabehera askoren ostean, Euskal Herriaren banaketa territoriala eta politikoa onartzen zuen autonomia estatutu bat onartzera pasa zen. Horrela, Hego Euskal Herrian bi erkidego sortu ziren: Baskongadak eta Nafarroa. Eta hori guztia kontzertu ekonomikoen truke, jeltokideek onartzen ez duten arren (...) EIAk eta Euskadiko Ezkerrak ere, Mario Onaindia eta Bandrés buru zirelarik, Konstituzio espainiarraren aurka azaldu ziren, baina ukapenez betetako estatutu mutilatu bera onartu zuten (...) Euskal gizarteari estatutuaren "bertute miresgarriak" erakutsi zituzkion: bakea, garapena eta Euskal Herriko eskubide historikoak errespetatzeko tresna moduan aurkeztu zen. Nafarroa at gelditzeak ez zuen garrantzirik, subiranotasuna espainiar herrian egoteak ez zuen garrantzirik, gure etorkizuna eraikitzeari uko egiteak ez zuen garrantzirik...» (Idigoras, 1999: 309-333).

Horrela, Gernikako Estatutuaren onarpenarekin trantsizioa amaitutzat jo zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan; soilik testuan jasotakoaren arabera euskal errealitatea eraikitzea falta zen. Horrela, EAEn lehen hauteskundeak deitu ziren 1980ko martxoaren 9an; EAJren garaipena argia izan zen, 340.000 boto eta 60 gaineko 25 jarlekurekin. HB boto gehien lortu zituen bigarren indarra izan zen eta 11 jarleku zegozkion, baina bere ez azaltzearen ondorioz, EAJk bakarrik gobernatu ahal izan zuen. Gainontzeko jarlekuak PSOE (9), EE (6), UCD (6), AP (2) eta PCE/EPK (1) alderdien artean banatu ziren. Apirilaren 10ean Carlos Garaikoetxea lehendakari hautatu zuten eta bere inbestiduraren diskurtsoan hurrengo lau urteetarako EAJren programaren hiru oinarri nagusiak aipatu zituen: krisi ekonomikoa gainditzea, indarkeriarekin bukatzea eta Estatutua bere osotasunean garatzea.

V. 2. Nafarroaren bazterketa

Madrilgo gobernuarekin mantendutako negoziaketan arazo nagusia Nafarroa euskal prozesu aurreautonomikoan egon behar zen edo ez erabakitzea izan zen; euskal abertzaleak eta ezkerreko sektore batzuk elkarketa horren aldekoak ziren eta ekintza batzuk prestatu zituzten ideia hori gizaratean errotzeko, hala nola,

*Askatasunaren martxa eta Orreagako batailaren ehungarren urtemuga*⁸. Baina, UCDk, gehiengoa zuena Nafarroan, probintziaren izaera historiko propioa (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren izaera historikoarekin alderatuta, guztiz ezberdina ei zena) eta bere autonomia defendatzen zuen, eta gainera, alde aurretik Nafarroan erreferendum bat egin gabe elkarketa adostea ez zuen begi onez ikusten. Hala ere, azkenean ez zen inolako erreferendumik egin Nafarroan. Era berean, PSOEren bira nabarrista kontuan hartu behar dugu, aldaketa garrantzitsua suposatu baitzuen Nafarroa/Euskadi eztabaidaren balantzan.

Gobernuarekin izandako elkarrizketa horietan adostasunik lortu ez zenez, Hego Euskal Herriaren banaketa instituzionala gertatu zen: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak Euskal Autonomia Erkidegoaren sorrerara eraman zuen bidea jarraitu zuten⁹, ikusi dugun bezala, eta Nafarroak, Nafarroako Foru Erkidegoa bihurtzera eraman zuen bidea hartu zuen.

Konstituzioaren eta euskal Estatutuaren ondorioz, Nafarroa geroz eta gehiago aldentu zen Araba, Gipuzkoa eta Bizkaitik. Trantsizioan zehar, Nafarroaren elkartasuna espainiar Koroarekiko areagotu eta finkatu zen. Horrela, Errege-Dekretu batek Legebiltzarra indarrean jarri zuen eta hauteskundeak deitu ziren 1979ko apirilaren 3rako. 70 foru-legebiltzarkide hautatu behar ziren; horietatik zazpi, Foru Aldundia osatu behar zuten diputatuak izango ziren: Iruñeko bat eta Tuterako bat, bi horiek hiri handienak izaki, eta Nafarroako merindade historiko bakoitzeko bat (bost, beraz).

Hauteskundeen emaitzen arabera, honakoak izan ziren hautatuak: UCDko lau kide (Jaime Ignacio del Burgo Tajadura Iruñeatik, Juan Manuel Arza Muñuzuri Lizarratik, Ángel Lasunción Goñi Tuteratik eta Pedro Sánchez de Muniáin Corera Olitetik), PSOEko kide bat (Jesús Malón Nicolao Tuterako merindadetik), HBko kide bat (Ángel García de Dios Iruñeako merindadetik) eta Orhy Mendi talde abertzaleko kide bat (Jesús Bueno Asín Zangotzatik). Horrela, apirilaren 19an Foru-Aldundia

⁸ *Askatasunaren martxa* Nafarroatik kanpo jaio eta garatu zen, baina helmuga bezala Arazuriko zelaia izan zituen, Iruñetik gertu. Bertan, 1977ko maiatzaren 28an, jende ugari bildu zen eta ekitaldi politikoa egin zen. "Diario de Navarra"n, "El Pensamiento Navarro"n eta "Deia"n argitaratutako kroniken arabera, hainbat erakunde politiko eta sindikatu izan ziren martxa horren antolatzaileak: UJM, ORT, EIA, OICE eta PTE alderdiak eta SUN, LAB, CSUT eta ELA sindikatuak, besteak beste. Ekitaldi horretan jorrotutako gai nagusiak Nafarroa Euskadin sartzea, euskal Autonomia Estatutua, preso politikoen amnistia eta ETArekiko atxikimendua izan ziren. Aipatutako kroniken arabera, ekitaldian parte hartu zuten Telesforo Monzon, Bandrés eta Letamendia legebiltzarkide gipuzkoarrak eta ETako zenbait kide (Izko de la Iglesia, Mugika Arregi, Pérez Beotegi, Gorostidi, Egaña, Atxaga, Aldalur, Onaindia, Goiburu, Uriarte, Mentxakatorre, Sarasketa, Pagoaga, Dorronsoro, etab.). Indar polizialak, indarra erabiliz, ekitaldia oztopatzen saiatu ziren.

Orreagako batailaren ehungarren urtemugari dagokionean, Foru Aldundiak, Principe de Viana Erakundearen bidez, Orreagako batailaren XII ehungarren urtemugako ospakizunak prestatu zituen 1978ko abuztuaren 16rako. Gertakari historiko horrek konnotazio nazionalista handiak zituen, baskoiak izan zirelako Karlomagno garaitu zutenak. Baina, ekitaldi ofizial horietaz gain, data horren sinbolismo historikoa garrantzi politikoa lortzeko erabili zuen erakundeak, "Ibañeta Komitea" aipatu behar da. EAJk antolatutako erakunde horrek izaera moderatuko festa handi bat antolatu zuen; Jose Miguel Barandiaranek zuzendutako mezaren ostean, txistulariak, koroak eta Lapurdiko, Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako dantzariak egon ziren. Ondoren, Junes Casenaveren "Ibañeta" pastoralara antzeztu zen.

⁹ Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak beraien bide propioa jarraitu zuten arren, euskal aurreautonomiaren proiektuan Nafarroa sartzeko atea irekita uzten saiatu ziren; Gernikako Estatutuan ere, Nafarroa EAEn integratzeko aukera aipatzen da: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Lurralde Historikoek osatzen dute Erkidegoa, eta baita Nafarroa ere, elkartzea erabakiz gero, Konstituzioan jasotzen den prozedurari jarraiki.*

osatu zen, Jaime Ignacio del Burgo presidente¹⁰ eta Manuel Arza presidenteorde hautatu zirelarik. Orduko Foru Aldundiari "demokratikoa" deitu zitzaion, 1979ko urtarrilaren 26ko Erakundeen Demokratizaziorako Dekretuaren ostean osatu zelako.

4. Taula: 1979ko apirilaren 3ko Foru-Legebiltzarrerako hauteskundeak

HAUTAGAI-ZERRENDA	AULKI KOPURUA	BOTOAK
Unión de Centro Democrático (UCD)	20	68.040
Partido Socialista Obrero Español (PSOE)	15	48.289
Unión de Pueblo Navarro (UPN)	12	40.764
Herri Batasuna (HB)	9	28.244
Nacionalistas Vascos (NV)	4	12.845
"Orhy Mendi" hauteskunde-taldea	3	5.954
Tierra Estella hauteskunde-taldea	2	6.407
Merindad de Olite hauteskunde-talde herritarra	2	4.921
Unión Navarra de Izquierdas taldea (UNAI)	1	7.419
Independientes Forales Navarros hauteskunde-taldea (IFN)	1	3.729
Partido Carlista (PC)	1	12.165
Beste batzuk	-	15.100
GUZTIRA	70	253.877

Iturria: GORTARI UNANUA, J., La transición política en Navarra: 1976-1979. Nafarroako Gobernua. Iruñea, 1995. 720. orr.

Apirilaren 23an, 70 legebiltzarkideak beraien lekua Parlamentuan hartzerakoan, zinaren arazoa sortu zen. Bileran zailtasunak ekiditzeko, honako formula alternatiboa proposatu zen gazteleraz:

«Jainkoarengatik zin egiten dut, edo nire kontzientzia eta ohorearengatik hitz ematen dut, Foru Legebiltzarreko betebeharrak leialki betez, Nafarroako Foruak berrintegratu, defendatu eta hobetzen saiatuko naizela, autogobernu eta askatasunaren adierazle bezala» (Gortari Unanua, 1995: 733).

Legebiltzarkide gehienek formula hori erabili zuten, batzuek zin eginez eta besteek hitz emanez. Baina, gutxiengo abertzale batek (HB, Orhy Mendi, UNAI eta Nacionalistas Vascos alderdiko kideak), honako formula erabili zuen euskaraz:

«Klase herritarren defentsan, karguaren betebeharrak beteko ditudala zin egiten dut, Euskal Herriaren bihotza den Nafarroari leial izanda, foru-berrintegrazio osoa momentu oro bultzatuz, autogobernu eta askatasunaren adierazle bezala» (*Ibid.*).

Carlos Garaikoetxeak, Nacionalistas Vascosen integratua, bere taldetik aldendu zen eta hurrengo formula jarraitu zuen euskaraz:

«Jainkoaren aurrean zin egiten dut foru-legebiltzarkide bezala ditudan betebeharrak gogoz beteko ditudala, Nafarroa eta Euskal Herria osoari leial izanda, eta Foruen mantentzea, ikuskaritza eta hobekuntza bultzatuz, gure Herriaren autogobernu eta askatasunaren adierazle bezala» (*Ibid.*).

EAJko Manuel Irujo Olló izan zen zeremoniako presidentea, legebiltzarkide zaharrena izaki, 87 urterekin. Berak emandako hitzaldian, Nafarroa Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabarekin elkartzearen alde agertu zen, nafarren jatorri euskalduna ukazina zela argudiatuz. Era berean, hitz batzuk eskaini zizkion euskararen defentsari:

¹⁰Diputatuek bozketa bat egin zuten apirilaren 19an Nafarroako Foru Legebiltzarrerako presidentea hautatzeko. Jaime Ignacio del Burgo UCDeko lau botoak lortu zituen, PSOEko Jesús Malónnek zuria bozkatu zuen eta Jesús Buenok bi boto lortu zituen (HBko Ángel Garcia de Diosena eta berea). Horrela, del Burgo hautatu zuten presidente, aurreikusita zegoen bezala.

«Euskara defendatzea giza zibilizazioaren alde egin dezakegun ahalegin hoberena da (...) Ez dago gure Herrian euskara bezain meritagarria, baliotsua eta garrantzitsua den ezer. Gaur egun hitz egiten den historiaurrekoa hizkuntza da, jakintsuen ustez Historiaurrearen eta Historiaren arteko lotura izan daitekeena» (*Ibid.*: 738).

Zenbait eztabaiden ostean, 1982an, espainiartasuna defendatzen zuten taldeak adostasun batera iritsi ziren eta Nafarroako Foru Erregimena Berrosatu eta Hobetzeko Lege Organikoarekin (euskal Estatutuaren baliokidea), Nafarroa Foru Erkidego bihurtu zen, bertan indarrean jarritako eredia EAEkotik eta Espainiar estatuko komunitateetatik ezberdintzen zelarik. Lege hori Gorteetan onartua izan zen Estatutu mailarekin, Gobernuako komisio batek eta Nafarroako autoritateek zuzenketa batzuk egin ondoren. Xabier Arzalluzek honela oroitzen du Nafarroa EAetik kanpo nola gelditu zen:

«Nafarroarena Madrilan, eta ez Iruñean, erabakitako bidegabekeria izan zen. Iñigo Cavero berak Anasagastiri aitortu zion Diputatuen Kongresuan edukitako elkarriketa batean (...) Nafarroaren kontuan ezetz eta ezetz esan zutenak militarrek izan zirela kontatu zion. Nafarroa hiru probintziekin elkartzea ezinezkoa zela esan zutela, orduan Euskal Herriak lurralde-entitate garrantzitsua izango zuelako, 200 kilometrotik gorako muga izango zuelako Frantziarekin, eta gainera, nekazaritza nafarra Euskadirentzat bihitegi moduan jokatu zuelako, horrek beste Estatu bat osatzeko nahikoa indar territorial eta ekonomiko eskainiko ligukeelarik. Gaur egun, horrelako argudioek barregura sortzen dute (...) Nafarroa argi eta garbi manipulatu izan da. Baina, ona da oroitzeko trantsizioaren egunetan nabarrista deitutako horiek gutxiengo bat zirela. Nafarren gehiengoak bere etorkizuna Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiarekin batera ikusten zuen. Zalantzarik gabe, hori izan zen nafarrei hautestontzietan nolako autonomia nahi zuten erabakitzeko aukera ez ematearen arrazoia» (Sala, 2005: 22-23).

Beraz, ez zen inolako erreferendumik egin, ez zitzairen nafarrei galdetu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarekin batera autonomia erkidego bat osatu nahi zuten edo ez. Errege-dekretu batek erabaki zuen Nafarroa EAetik at egongo zela, nafarrei aukeratzeko eta pentsatzen zutena jakinarazteko aukerarik eman gabe.

VI. Ondorioak

Hego Euskal Herriko lurraldeen zatiketa autonomikoa suposatu zuen trantsizio prozesuaren ostean, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Erkidegoak, bakoitzak bere aldetik, beraien errealitate eta egitura berriak eraikitzeari ekin behar izan zioten. HBren abstentzioari esker, EAJk gehiengo absolutua lortu zuen 1980ko hauteskundeetan eta bere lehen gobernuan egitura instituzionalak finkatzeari ekin zion, tentsio askoren testuinguruan. Garaikoetxearen exekutibaren helburua desberdinak izan ziren: autonomiaren erakundetze prozesua, krisi ekonomikotik ateratzeko irtenbideen bilaketa, euskal kulturaren eta hizkuntzaren berreskurapena, baketze prozesua, etab. Garai honetan, EAJk Estatuaren kontrako arazoak berpiztu zituen. Kontutan izan behar dugu EAJk EAeko erakunde guztiak kontrolatzen zituela, PSOE nahiko ahul zegoela eta UCD krisi larrian zegoela.

Estatuko alderdiek, hala nola, PSOEk eta UCDk, Komunitate Autonomorako konpetenzien transferentzia atzeratu zuten. Adibiderik argiena Prozesu Autonomikoko Administrazioarako Lege Organikoa izan zen. Honek Estatuaren eta Erkidego Autonomoen arteko harremanak bideratu nahi zituen Estatuaren kontrol politikoa bermatuz.

1982. urteko PSOEn garaipenak Espainian etapa berri bat zabaltzeaz gain, estatutuko botoen orientazio berri bat suposatu zuen Euskal Herria. Horrez gain, euskal erakundeen eta gobernu zentralaren arteko harremanen egoera aldatu zuen. Aldaketa hori 1984. urteko hauteskundeetan antzeman zen. Hauteskunde horietan EAJren gailentasuna baieztatu zen. Aldi berean, pluralismo handiagoa eman zen, EAJ eta EE gorakadan eta PSOEn berreskurapenaren ondorioz.

Terrorismoaren kontrako politikari dagokionez, PSOEk fronte desberdinak bideratu zituen arazoa konpontzeko: poliziaren eskutik, Plan ZENarekin (Zona Especial Norte); maila internazionalen, Frantzia eta Espainiaren arteko harremanak hobetuz "Santutegi frantsesa" desegiteko nahiarekin; politika mailan, armak uzten zituenei gizartean barneratze laguntzak emanez. Egoera eta tentsioak areagotu ziren *Grupo Armado de Liberación* (GAL) sorrerarekin. Hauek Frantzian zeuden euskal errefuxiatuen kontrako ekintzak burutu zituzten. 1984. urteko lehenengo hilabeteak esanguratsuak dira ETA Politiko-militarra desagertu zelako. Indultua lortu nahi zutenak idatziz zin egin zuten armak utziko zituztela eta aurreko erakundeen militantziaz at geratuko zirela. Era horretan, beraien kontrako kargu judizialak kendu zituzten. VIII Asanbladako gainontzeko kideak, neurri hauek onartu ez zituztenak, ETA Militarrean sartu ziren.

Gasteizeko Gobernuaren eta Diputazio Foralen arteko lehiak, Euskararen eta sinboloen Normalizaziorako Legeak... tentsio berriak sortu zituzten nazionalisten komunitatearen barruan. 1982. urtean EAJk ETB sortu zuen eta honen lehenengo emisioa abenduaren 31n egin zen. Honekin, euskal kultura bultzatu nahi zen eta, horrez gain, ikus-entzunezkoen bidez euskararen erabilera hedatu nahi zen.

Nafarroari dagokionez, ikusi dugun bezala, bi urteko negoziazioen ostean, bere erakundetze foraleko prozesua bukatu zuen, EAetik at. Gorteen Nafarroako Foru Erregimena Berrosatu eta Hobetzeko Lege Organikoa onartu zuten eta horrela, guztiz bereizi ziren Nafarroako eta Euskadiko autonomiak¹¹. 1979ko Gernikako Estatutuak Nafarroak egunen batean Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiarekin erkidego berean elkartu nahi izanez gero hori gertatzeko prozedura ezarri arren, badakigu hori ekiditeko oztipoak eta oztipoak jarri direla espainiar gobernutik.

Bibliografia

- Agirreazkuenaga, J. (1997): *Euskal Herria. Atlas historikoa. Lur Entziklopedia Tematikoa*, Lur argitaletxea, Gallarta.
- Bazán, I. (zuz.) (2002): *De Túbal a Aitor. Historia de Vasconia*, La esfera de los libros, Madril.
- García de Cortázar, F.; Lorenzo Espinosa, J. M. (1997): *Historia del País Vasco*, Txertoa, Lizarra.
- Gortari, J. (1995): *La transición política en Navarra: 1976-1979*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Granja, J. L. de la; Pablo, S. de (koord.) (2002): *Historia del País Vasco y Navarra en el siglo XX*, Biblioteca nueva, Madril, 2002.
- Idigoras, J. (1999): *El hijo de Juanita Gerrickabeitia*, Txalaparta, Tafalla, 1999.

¹¹OÑA GOMEZ, P.; GARCÍA de VICUÑA PEÑAFIEL, P., *Aproximación a la historia contemporánea de Euskal Herria: un acercamiento para su estudio y comprensión*. Laberinto. Madril, 2000. 186. orr.

- Juliá, S.; Pradera, J.; Prieto, J. (koord.) (1996): *Memoria de la transición*, Taurus, Madril.
- Llera, F. J. (1994): *Los vascos y la Política*, EHU Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- López de Juan, J. M. (1998): *La autonomía vasca: crónica del comienzo*, Txertoa, Lizarra.
- Lorenzo Espinosa, J. M. (1997): *Historia de Euskal Herria: el nacimiento de una nación*, III. Liburukia, Txalaparta, Tafalla.
- Oña, P.; García de Vicuña, P. (2000): *Aproximación a la historia contemporánea de Euskal Herria: un acercamiento para su estudio y comprensión*, Laberinto, Madril.
- Pablo, S. de; Mees, L.; Rodríguez Ranz, J. A. (2001): *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, II: 1936-1979*, Crítica, Madril.
- Sala, R. (2005): "Tres décadas de idas y venidas desde la atalaya de Xabier Arzalluz", in *Gara*, VII. urtea, 2446. zenbakia; 2005 azaroa-2 asteazkena.
- Ugarte, J. (ed.) (1998): *La transición en el País Vasco y España. Historia y memoria*, EHU Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.